



2010-04-22

2010eko Euskadi literatura sarien aurkezpena

Aurten zortzi modalitate izango dira eta parte hartzeko modua aldatu egingo da

Euskadi sarien aurtengo edizioan hirutik zortzira igoko da modalitateen kopurua, eta aldaketak egongo dira parte hartzeko moduan. Hautagaiak aurkezteko epea bihar (apirilaren 23an) hasiko da, Liburuaren Nazioarteko Egunarekin batera.

2010eko Euskadi literatura sarien modalitateak hauek izango dira: euskarazko eta gaztelaniazko literatura, haur eta gazteen euskarazko eta gaztelaniazko literatura, euskarazko literatura itzulpena, literatura lanaren ilustrazioa eta euskarazko eta gaztelaniazko saiakera. Hartara, euskal idazleen parte hartzeko aukerak handitu egin nahi dira. Euskadi literatura sariak 18.000 euro gordinez hornituta daude modalitate bakoitzeko. Diru-kopuru hori saritutako lanen egileei emango zaie. Irabazleek Euskadi literatura sarietarako berriaz egindako eskulturaren ale zenbakitua jasoko dute. Horrez gain, saritutako lanaren egileak (euskarazko itzulpenaren kasuan salbu) beste 4.000 euro gordin ere jaso ahal izango ditu, saritutako lana euskara ez den beste hizkuntza batean argitaratzeko kontratua sinatu ostean.

Euskadi literatura-sariak eskuratzeko aukera, argitaratze unean bizirik dauden egileek jatorriz euskaraz idatzitako lanek izan ahalko dute. Lan horiek lehen aldiz 2009ko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 artean argitaratuak izan beharko dute, zabalkundea egiteko bete beharreko lege-baldintzak betetzen dituztela. Literatura-lana argitaratu den egunari buruzko zalantzarik izanez gero, Lege-gordailuaren eratze-data hartuko da kontuan. Hala ere, kasuan kasuko modalitatean sari hau azken hiru deialdietako batean jaso duten idazleen edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dira, nahiz eta goiko atalean zehaztutako baldintzak bete.

Hautagaiak

Aurtengo ediziotik aurrera, beharrezkoa izango da modalitate bakoitzerako hautagaiak aurkeztea. Edozein pertsona fisikok zein juridikok, bai publikoak bai pribatuak, aurkeztu ahal izango ditu sarirako hautagaiak, baita lanaren egileak berak ere. Edonola ere, hautagaiak aurkezteko baino lehen lanaren egilearen alde aurretiko onespren dokumentatua beharko da.

Hautagaiak aurkezteko epea 2010eko apirilaren 23an hasiko da, eta maiatzaren 31n amaituko.